



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza
Deialdia: Lehenengoa
Bilera mota: Arrunta
Eguna: 2021.12.27
Ordua: 19:00tan
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Inor ere ez.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2021/10/26ko akta aho batez onartzen da.

2. 2020KO KONTUEN ITXIERA ONESPENA.

Idazkariak 2020ko kontuak azaltzen ditu. Hala nola, Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioak kontuak errepasatu eta garbiketa lanak egin dituela aipatzen du, modu honetara, kontabilitatea ahalik eta egoera zehatzenean itxi ahal izateko.

Zentzu horretan, likidazioa 127/2021 alkate Ebazpen bidez onetsi ziren. Orain, kontuak itxi ahal izateko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluan xedaturikoa jarraitu beharko dela azaltzen du.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- 2020ko kontuen itxierari onespena ematea.
- 2.- Akordio hau Arantzako Udaleko iragarki oholean argitaratzea 15 egun balioduneko epean interesdunek alegazio edo erreklamazioak aurkez ditzaten.
- 3.- Kontuen itxieraren dokumentazioa Nafarroako Toki Administrazioa bidaltzea IDECAL aplikazioaren bidez.

3. 2021EKO KONTUETATIK PRESKRIBATU BEHARREKO KOPURUEN ONESPENA.

Idazkariak 2021eko kontuetatik preskribatu beharreko kopuruaren zenbatekoa eta zergatia azaltzen ditu. Hala nola, Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioak kontuak erreparasatu eta garbiketa lanak egin dituela aipatzen du, modu honetara, 2021eko kontuen itxiera eta 2022ko kontuen irekiera ahalik eta zehatzena izan dadin.

Horri dagokionez, 2021eko kontuetan preskribatu beharreko kopuruak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 16tik 20ra bitarteko artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuta egin dela dio. Halaber, idazkariak azaltzen du preskripzio bidezko balio gabetze hauek Nafarroako Toki Administrazioarako kontabilitate sinplifikatuaren jarraibidea onartzen duen irailaren 21eko 273/1998 Foru Dekretuko 56, 60 eta 68 arauetan xedaturikoaren arabera gauzatu beharra dela. Horretarako, osoko bilkuraren akordioa beharko litzateke, izan ere, preskripzio hauek 2022ko kontabilitateko hasierako saldoei eragingo lieke.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- 2021eko kontuetatik preskribatu beharreko kopuruak onartzea.

4. 2022KO AURREKONTU, EXEKUZIO OINARRI ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak Arantzako Udalaren 2022ko aurrekontu, exekuzio oinarri eta plantilla organikoak azaltzen ditu.

2022ko aurrekontuari dagokionez, aurreikusitako aurrekontutik zenbait kopuru hobez zehazten dira, izan ere, kasu batzuetan aurreikusita zeuden sarrerak baino gehiago izanen baitira eta, gastuen atalean berriz, aurreikusitako gastuak baina gutiago. Horrela bada, momentu horretan idazkariak

2022ko aurrekontuak zuzendu egiten ditu behin behineko aurrekontuei hasierako onespina eman ahal izateko.

Era berean, idazkariak azaltzen du 2022ko aurrekontu eta exekuzio oinarriak onartu ahal izateko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 267tik 272ra bitarteko artikuluetan xedatutakoaren arabera egin beharra dela. Plantilla organikoari dagokionez, Foru Lege bereko 235 artikuluan xedaturikoaren arabera onartu beharko litzateke.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- 2022ko aurrekontu, exekuzio oinarri eta plantilla organikoari hasierako onespina ematea.
- 2.- Hasierako onespinen iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako Udaleko iragarki oholean argitaratzea, hamabortz eguneko epean herritar eta interesdunek espedientea aztertu eta hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.
- 3.- Adierazitako epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez badira, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 272. artikuluan xedatutakoaren arabera, behin betiko onestea.

5. AR2A SEKTORIZATU GABEKO HIRI-LURZORUAREN ALDAKETA, BEHIN-BEHINEKO ONESPENA.

Idazkariak Arantzako AR2A sektORIZATU GABEKO hiri-lurzoruaren aldaketaren nondik norakoak azaltzen ditu. Horri dagokionez, idazkariak aipatzen du 2016ko ekainaren 17an Arantzako Udaleko osoko bilkurak aipaturiko aldaketa egituratzaileari hasierako onespina eman ziola. Horrela, Nafarroako Gobernuko Udal Hirigintza Planteamenduko Atalak 2016ko uztailaren 15ean aldaketaren inguruko txostena egin zuen baina, Udal ordezkarien aldaketa medio, orain arte ez da behin-behineko onespina eman.

Era berean, aipatzekoa da hasierako onespinen jendaurreko aldi honako hauek alegazioak aurkeztu zituztela:

- Felix Vergara Elizondo.
- Maria Dolores Alzugaray Sein.
- Isidro Etxeberria Alzuri.
- Restauraciones Gohierri, S.L.

Alegazio hauek ebazteko Markos Erro Martinezek, Arantzako Udaleko abokatuak, 2019ko azaroaren 18ko data duen txostena prestatu zuela adierazten du idazkariak.

Horren inguruan udalkideek adierazten dute gaiaren inguruan hausnarketa bat egin dutela. Izan ere, aurreko legealdian hasia zen aldaketa honen izapidetzea eta beraiek jarraipen bat eman ahal izateko ongi informatu nahi zuten. Era berean, aipagarria ikusten dute Arantzako Udal Plan

berriaren tramitazioan eta, bereziki, EMOTaren idatzian herrigunea inguru horretatik ez zabaltzea aurreikusten dela.

Horrela bada, idazkariak azaltzen du aldaketari behin behineko onespina emateko Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 71. artikuluko 11., 12. eta 13. puntuetan xedaturikoaren arabera izapidetu beharra dela.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Felix Vergara Elizondo, Maria Dolores Alzugaray Sein, Isidro Etxeberria Alzuri eta Restauraciones Goiherri, S.L.k aurkezturiko alegazioak gaitzestea, Marcos Erro Martinez abokatuaren txostenaren arabera.

2.- AR2A sektorizatu gabeko hiri-lurzoruaren aldaketa egituratzaileari behin behineko onespina ematea.

3.- Akordio hau, Marcos Erro Marinez abokatuaren txostenarekin batera, Felix Vergara Elizondo, Maria Dolores Alzugaray Sein, Isidro Etxeberria Alzuri eta Restauraciones Goiherri, S.L.ri jakinaraztea.

4.- Akordio hau, behin behinean onartutako dokumentazio eta Marcos Erro Marinez abokatuaren txostenarekin batera, Nafarroako Gobernuko Udal Hirigintza Planteamenduko Atalari jakinaraztea, aldaketa egituratzaileari behin betiko onespina emateko.

6. GESERLOCAL, S.L. ERAKUNDE INSTRUMENTALA DEKLARATZEKO ETA PREMIADUN BIDEZKO TRIBUTU KUDEAKETARAKO LAGUNTZA ETA KONTABILITATE ETA EKONOMIA LAGUNTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO ONESPENA.

Idazkariak azaltzen du berriki GESERLOCAL, S.L. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziotik atera egin dela. Beraz, euren zerbitzuak kontratatu ahal izateko alde aitzinetik erakunde instrumental izendatu beharko litzateke ondotik tributu kudeaketarako laguntza eta kontabilitate eta ekonomia laguntzako zerbitzuak kontratatu ahal izateko. Erakunde instrumental izendatzeko, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.2.d) artikuluan xedaturikoa jarraituz egin beharko litzateke.

Tributu kudeaketarako laguntzaren kostua bildutako zorren kostekin ordainduko litzateke, beraz, ez luke gainkosturik eragingo.

Kontabilitate eta ekonomia laguntzako zerbitzuari dagokionez, aurrekontuak eskatuak direla azaltzen du idazkaria. Dena dela, zerbitzu honen kostua benetan egindako zerbitzuaren arabera ordainduko litzateke, beraz, ez da espero aparteko gainkosturik eragitea. Gainera, aipatzekoa da

2022an ez dagoela aurreikusia administrari laguntzaile bat kontratatzea kontabilitatea eramateko, beraz, diru kopuru hori honako zerbitzu honetara bideratu ahal izanen litzateke.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- GESERLOCAL, S.L. Arantzako Udalaren erakunde instrumentala izendatzea.
- 2.- GESERLOCAL, S.L.en tributu kudeaketarako laguntza kontratatzea.
- 3.- GESERLOCAL, S.L.en kontabilitate eta ekonomia laguntzako zerbitzuak kontratatzea.
- 4.- Akordio hau, dagokion dokumentazio osagarriarekin batera NUKFri eta GESERLOCAL, S.L.ri jakinaraztea, zerbitzuekin ahalik eta lasterren hasi ahal daitezen.
- 5.- Akordio hau Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.

7. ARANTZAKO UDAL HIGIEZINEN GARBITZAILE BAT KONTRATATZEKO DEIALDIAREN ONESPENA.

Idazkariak azaltzen du udal higiezinak garbitzen zituen garbitzaileari kontratua bukatu zitzaiola. Momentu honetan, aldi baterako kontratuarekin garbitzaile bat kontratatua dago udalean baina hurrengo urterako eta, bereziki, ikasturte bukaerako garbitzaile bat beharko litzateke epe aldi hori betetzeko.

Horregatik, udal higiezinak garbitzaile bat kontratatzeko deialdiaren nondik norakoak azaltzen ditu idazkariak. Kontratua aldi baterako izanen litzateke (6 hilabeterako) eta Nafar Lansarek interes sozial edo orokorreko langabetuak kontratatzeko dirulaguntza bidez lagunduko litzateke kontratazio honen kostuaren zati bat.

Udalkideek honen inguruan eztabaidatzen dute. Bereziki, deialdiaren ondorengo puntuak zehazten dituzte:

- Deialdia Bortziriak, Malerreka eta Baztanen zabalduko da.
- Deialdira aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 12a arte izanen da.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Arantzako udal higiezinak garbitzaile bat kontratatzeko deialdiari onespena ematea.
- 2.- Deialdi hau, dagokion eskaera ereduarekin batera, Nafar Lansareri bidaltzea Bortziriak, Malerreka eta Baztanen zabal dezaten, adierazitako baldintzan betetzen dituzten pertsonak deialdira aurkeztu ahal izateko.

8. 4/2021 AURREKONTU ALDAKETAREN ONESPENA.

Idazkariak azaltzen du abenduaren 10eko euriteen ondorioz izandako kalteen harira Bordalarreako bidearen moldaketa gauzatu ahal izateko diruzaintzako gerakinetik 8.823,31 euroko aurrekontu aldaketa bat egitea planteatzen zela honako puntu honetan. Dena dela, obrak oraindik ez dira amaitu eta hauen bukaera 2022an izatea espero da. Horrela bada, faktura 2022an iritsiko litzateke.

Horregatik, aurrekontu aldaketa hau bertan behera uztea proposatzen du, horrela, 2022ko aurrekontuan gauzatu ahal izateko, dokumentazio guztia urte horretakoa izanen baita.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- 4/2021 aurrekontu aldaketaren onespena bertan behera uztea.




9. ALKATEAREN EBAZPENAK

120/2021-131/2021 arteko Ebazpenak berretsi egiten dira.

10. ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 21:45ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,		IDAZKARIA,
		
Dabid Iturria Almandoz		Nagore Madariaga Iriarte